

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Hautatu dituzte merkaturatzeko babesa jasoko duten LHko ikasleen zortzi proiektuak

Nafarroako Gobernuak sustatzen duen Ideiagintza programaren barruan sortutako ekimenak gauzatzeko orientazioa, aholkularitza eta laguntza izango dute.

Jueves, 12 de diciembre de 2013

Lanbide heziketako titulua duten 15 ekintzailek sustatutako zortzi proiektu hautatu dituzte Ideiagintza proiektuan parte hartzeko. Proiektua Nafarroako Gobernuak sustatu du eta Nafarroako LHko ikasle eta tituludunei enpresa berriak abian jartzen laguntzeko da .

Redecore (erabilitako altzarien salerosketa), La dulce Lola (sormenezko gozogintza), Avance (irudi- eta diseinu-zerbitzuak), Antena-kommutadorea, Navarra Deportiva (komunikazio-plataforma), Ludoteca Boliche (ludoteka), Reyno gourmet móvil (sukaldaritza mugikorra) eta Motor Van (furgonetak egokitzea) dira proiektuak.

Ekimenek Nafarroako Enpresa eta Berrikuntzarako Europako Zentroa (CEIN) sozietate publikoaren aholkularitza jaso eta sozietate hori izango dute tutore, merkaturatzeko berriaz diseinaturiko laguntza-programa baten bidez.

Programaren nondik norakoak

Programa "ekintzailatza bizkorra" delakoan oinarritzen da, ekintzailea al bait azkarren has dadin asmatutakoa lantzen, merkatuan proba eginez. Horrek asmatutako produktuak edo zerbitzuak funtziona dezakeen edo ez egiaztatzen lagunduko dio. Funtzionatu ezean, jatorrizko hipotesia moldatu ahal izango du merkatuan ikusitakora modu aproposenean egokitzeko.

Ekimenak enpresa gisa prestatzeko, eta ikuskera horri jarraiki, negozio-eredua, aurkezpena edo proiektuaren edo zerbitzuaren prototipoa bezalako alderdiak landuko dira. Halaber, lanerako toki iraunkorra izango dute CEINen instalazioetan.

CEINeko ekintzailatzako profesionalen gain, prozesuan lanbide-heziketako tutore tekniko adituek parte hartuko dute (ekimenetako produktuaren edo zerbitzuaren garapena babesteko), baita esperientziadun enpresen arloko kontseilariak ere (enpresa berriak abiaraztean horien balioa hobetuko dute).

Programan parte hartuko duten proiektuak aurkeztutako 20 hautagaitzaren artetik aukeratu dira. Horietan Donapea, Cuatro Vientos, ETI Tuter, Corellako arte-eskola, Virgen del Camino IB, Burlata IB, Ciser, Estna, Sierra de Leire BHI eta Mariana Sanz BHI zentroetako lanbide-heziketako 41 ikasle edo tituludunek parte hartu dute.

Berriki Foru Komunitateko LHko zentroetan ezarri diren enpresak

bultzatzeko bulegoek burutzen duten laneko jardueretako bat da, eta helburua ikasle eta tituludunen ekimen eta negozio eta autoenplegurako ideiak detektatzea da, ondoren horiei merkaturatzeko orientazioa eta laguntza eskaintzeko.

Ideiagintza proiektua Hezkuntza Departamentuak bultzatzen du Lanbide Heziketako Zerbitzuaren bidez, eta CEINen eta Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioaren laguntza du.